

ADIMEN ARTIFIZIAL SORTZAILE JASANGARRI BATEN ALDE



Aspaldi da Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datozen politikak egiteko beharra planteatu genuela, besteak beste giza eskubideak -eta horien artean egile-eskubideak- errespetarazteko moduari heltzeko.

Hala ere, zerbitzu digitalen agerpenak ezkutatu egin zuen behar hori, eta **gure obren benetako espoliazioa** bultzatu zuen ekintza burutuen bidez, espoliazio horri legezko babes emanaz edo gure eskubideak truketarako txanpon gisa erabiliz, beste interes ekonomiko batzuen aurrean. Eta horrek guztiak areagotu egin du idazleen eta itzultzaileen lanaren pobretzea eta ondare kognitibo eta kultural komunaren hondatzea.

Gure eskubideen espoliazio edo derrigorrezko desjabetze hori azkartzen ari da adimen artifizial sortzailea (AAS) garatu ahala. AASko software-garatzailerik “denak balio du” printzipioaren arabera aritu eta ari dira lanean, eta hori ez da inola ere jasangarria. **Gure obrak lehengai gisa erabiliz software bat sortzea eta, ondoren, guri negozio-eredu bat inposatzea azpiegitura berri horretaz gozatzeko, bidegabea eta gehiegizkoa da.**

Idazleen eta itzultzaileen lanarekiko errespetu falta nabarmena dela eta, honakoa eskatzen dugu:

- Ekintza publiko ausart, garden eta transbertsal baten bidez babestea gizartea egituratzeko **funtsezkoak diren ondasunak, zeinen artean baitaude gure lanak eta haiei datxekien balio sozialak.**
- **Sortzaileei baimena eskatzeko, ordaintzeko eta informazio nahikoa eta zehatza emateko betebeharrak ezartzea** AASko softwarea garatzeko bide bakar gisa, herritarrei eragiten dieten beste produktu batzuk garatzeko printzipio utziezinak ezartzen diren bezala. **Eskubideak ez badira argi ezartzen eta errespetatzen, desagertu egiten dira.**
- Ez sustatzea, ekintzen bidetik, gure obrak baimenik gabe erabiltzea “zurituko” duen kontratu sozial berririk, AASko softwarearen garapenean. Horretarako, ezinbestekoa da **Administrazio Publikoek AASko softwarearik ez ezartzea eta ez erabiltzea, software horiek gure eskubideak ez ezik herritarren pribatutasun-eskubideak eta ingurumena bera ere errespetatuz garatu ez badira.**